




1. Mikel Larrañaga Rodriguez
2. Ainara Luariz-Ayerdi Pasaban
3. Jon Zubeldia Perurena
4. Igor Elizagirre Oyarzabal
5. Ane Ormaetxea Segurola
6. Urko Artano Olasagasti
7. Aitor Mayoz Urritegi
8. Asier Ugarte Ruiz
9. Leire Arzuaga Sarreatea
10. Luis Gurrutxuga Ugalde
11. Ester Berra Gaztelurrutia
12. Iñigo Sarasola Astigarraga
13. Mikel Sesma Tolosa
14. Garikoitz Arabolaza Zabala
15. Mikel García Azkue
16. Javier Estebanez Ramiro

Operadorea
Laguntzaile tekniko
Audio laguntzailea
Kamara
Diseinatzailer grafikoa
Operadorea
Operadorea
Kamara
Produktzio laguntzailea
Kamara
Luminoteknikoa
Errealizazio laguntzailea
Mantenimendu orokorra
Audio laguntzailea
Ingeniaria
Operadorea

**VOTA
LAB**
BOZKATU
OTSAILAK 23 FEBRERO
• 10:00-20:00

LAB



BAGARA

zurekin

Egiteko beste modu bat



LAB

EGITEKO BESTE MODU BAT. SINDIKATU EZBERDINA

Datorren otsailaren 23an ETBko hauteskunde sindikalak ospatzen dira Bilbon eta Miramonen. Lau urte iragan dira ETBn (Bilbo zein Miramonen) langileen gehiengoa lortu zuen sindikatua bihurtu ginenetik. Ez dira lau urte errazak izan: pandemia luze bat eta egonkortze prozesu baten hasiera kudeatzea suertatu zaigu. Era berea, behin behinekotasunaren aurka borrokatzen jarraitu dugu eta langileen eskubide eta hitzarmen urraketen kontrako lana egunerokotasuna izan dira. Gogor lan egin dugu epaitegietan, mobilizazioetan eta negoziaketa mahaian. Lorpen ugari izan ditugu eta baita konponbiderik gabe baina borrokan dihardugun afera nahiko ere.

LAB, lan sindikalaren erreferentzia.

Tamalez, lehen hiru urteetan zehar ETBko langile guztien defentsa bakardadean egin behar izan dugu, langileen ordezkariren beste sindikatu batek beste alde batera begiratzeko bitartean. Hau horrela izanik ere, ez dugu etsi eta gai nagusiak beste eragileekin adosteko borondatea erakutsi dugu; berebizikoa baita borroka sindikalean langileen batasuna. Hau dela eta, harro eta ohore osoa esan dezakegu lau urte hauetako lorpenak guregandik jaioak eta gure ekimenak izan direla. Egin ahal izan ditugun akatsak ere, gure gain hartzen ditugu eta ez dugu gure erantzunkizunik sahiesten. LABeko delegatuok arriskatu egin gara, adorea erakutsi dugu, ez gara kikildu langile klasearen interesen defentsan eta beste langile ordezkariren batzuen lobby izaera salatu dugu. Koherentzia eta justizia irizpideak oinarri izan ditugu.

Pluralak, hurbila eta gardenak, eguneroko arazoiei aurre egin dienak.

Lau urte hauetan hurbiltasuna eta gardentasuna eskaini dugu. Edozein momentutan, ordutan eta edonon zuen kezka eta arazoak jaso ditugu. Langileek beti izan dute erantzun bat gure aldetik, gardenak, zintzoak, zegoena isladatuz, eta gure helburu eta prozedurak argi eta garbi azalduz. Egiteko beste modu bat erakutsi dugu, sindikatu ezberdina gara. Guztiona.

**Olatua gara.**

2019tik inork gutxik sinistu ezin zezakeen egoerak pairatu ditugu eta akordio historikoak lortu. Gure lanaz harro gaude, baina erronka ugari ditugu aurretik horrexek bultzatzen gaitu, hain zuzen ere, datorren otsailaren 23an gure aldeko bozka eskatzera. Olatua gara.

Hurrengo erronkei begira

Datozen urteetan, erronka berriak datoz Miramonera. "MIRAMON FAKTORIA" proiektua gauzatuko da legealdi honetan eta oso gainean egongo garela hitz ematen dugu. Zuzendaritzak, gehienetan informazio gutxi partekatzen duen arren, batzuetan egin dugun moduan beste ate batzuk jotzeko prest gaude: administrazio kontseilua edota parlamentua. Ez dugu onartuko Miramon azpikontraten eta ekoiztetxeen produkzio zentroa bilakatzea.

**VOTA
BOZKATU LAB**
BOZKETA EGUNA
OTSAILAK 23 FEBRERO
10:00 -20:00



Babesa
Asesoramiento



Sostengua
Apoyo



Elkartasuna
Solidaridad



Bultzada
Impulso



Indarra
Fuerza

*Egiteko beste
modu bat*

ZER ESKAINI DEZAKEGU?

Hitza eta ekintza.

EITB Median, LAB da gehien hazten ari den sindikatua, eta ez kasualitatez. Langile asko eta asko ari dira LABera batzen, izan gure ideiekin bat egiten dutelako, izan bere eredu sindikal konprometitu eta solidarioa baloratzen dutelako, edo, badakitelako gurekin hitza eta ekintza batera doazela. Ilusioa eta borrokarako grina daukagu; eta badakigu baita ere, indarra bildu eta antolatzen bagara dendera lortzeko gai garela. Zeregin honetan ez gara bakarrik egongo, aholkulari sindikala eta baliabide espezializatuen babesa izango dugu: zerbitzu juridikoak, ekonomista, lan-osasuna, idazkaritza...

Hurbiltasuna, eguneroko lana.

Aurkezten dugun hautagai zerrendaren konpromisua erabatekoa da. Hurbiltasuna eta gardenetasuna eskaintzen dugu, behar diren erantzunak emateko inongo trabarik gabe (erosoagoak zein deserosoak izan), erabakiak hartzeko, borrokatzeko edota negoziatzeko adorea eta borondatea erakutsiz. Edonon eta edonoren aurrean.

Aurrera pausu handiak egin ditugu gutxiengotik abiatu ginenetik ETBko sindikatu nagusia izan arte, baina erronka asko eta potoloak ditugu aurretik.

LANGILEEN BERDINTASUNA

Oraindik ere lehen eta bigarren mailako langileak daude. Enpresa honetako zuzendari eta eragile batzuek eroso daude ezberdintasun honen menpean. LABek gogor borrokatzen jarraituko du bere osotasunean langile klaseren alde: finkoa izan, mugagabe ez-finko izan, behin-behinekoa, afiliatua izan zein ez, kategoria zehatz batekoa edo bestekoa...

LAN JARDUNALDI ETA PLANGINTZA DUINAK

Plus gisa ordaintzen diren lau sosek ez dute gure bizitza baldintzatuko. LABek lan egutegi eta plangintza ezagun eta egonkorrak bultzatuko ditu. Aste (egun) batetik besterako egutegien aldaketak ekididitu eta oporraldi, jai eta Z-en bermatzeak aldarrikatuko ditugu. Urte osorako egutegiak ezin dira salbuespenak izan, araua behar dute. Langile guztiak berdinak gara eta guztientzat berdina eskatzen dugu.

IT TXANDAKO LANGILEEN DEFENTSA

IT "marroneroa" (barne ITa) ezizenez ezagutua dena birformulatu: lehengo behin behineko langileen praktika ankerren oinardeko bihurtu da. Lan ordu eta jardunaldien egonkortzea nahi dugu. Errotazio ezagun eta gardenen alde egingo dugu.

UMtako ITko langileak pairatzen ari diren hitzarmen urraketa eta abusuak borrokatuko ditugu.

OPERADORE KATEGORIAREN BATERATZEA

Frogatua geratu da operadore lantaleak bakarra izan behar duela. Negoziatzen eta borrokatzen jarraitzen eta jarraituko dugu lehen mailako eta bigarren mailako langileen bizi baldintza eta soldatak berdintzeko.

BARNE PROMOZIOA

Barne sustapen deialdiak bultzatu ditugun arren, oraindik langileen promozio profesionala atzamarrez esleitzen da. Langileen aukera berdintasunean inisten dugu eta horren aurrean sor daitezkeen muga eta horma guztiak apurtzen saiatuko gara.

GESTORE SISTEMA BORROKATU

Aspaldiko borroka bada ere ez dugu amore emango EITB Mediako gestore sistema ilunarekin bukatu arte. Hitzarmeneko postuak, hitzarmenean egon behar dute. Gestore sistema langilegoaren kristalezko zabaia dira..

DENONA!

Egiteko beste modu bat

ZERBITZU PUBLIKOA, PLURALITASUNA ETA EUSKARA

Herri honetako komunikabide nagusi gisa erantzunkizun bat dugu euskal gizartearekiko. Kalitatezko euskara edukien alde borrokatuko dugu eta etxe honek Jaurilaritzan dauden alderdiekiko erakusten duen menpekotasuna salatzen jarraituko dugu, pluraltasuna aldarrikatzen jarraituko dugu. Telebista publikoa gara, hau ez da Sabin Etxea.

AZKEN 4 URTEETAN EGINDAKO LANAREN BALORAZIOA

LAB behin-behinekotasunaren aurkako txertoa.

ETBk bigarren mailakoak kontsideratzen zituen langileen defentsan aritu gara: iruzurrezko kontratazioak salatuz epaiketa guztiak irabaziz (2019tik 49 langile ez-finko egitea lortu dugu, 2014tik 76), behin-behineko langileei urratzen eta ukatzen zitzaizkien hitzarmen artikulua defendatuz (lapurtzen zizkieten plusak, antzinasun aitortzak, baimen eta oporraldi eskubi-deak, 12 orduko atsedeen tarteen bermatzea...). LABek hasitako borrokari esker behin-behinekotasun kontratu zitalenak inoizko daturik baxuenean daude, hala ere, oraindik lan asko dugu aurretik

2022an LABek 57 langile finkotzea lortu zuen.

Gure ekimen eta grinaz aurrera eramandako borroka eta negoziaketa baten emaitza izan zen. Zaila zirudien, baina lortu genuen. Langile hauen eskubideen defentsan aritu izan ginen, LABen gertukoa izan zein ez izan, afiliazio siglak begiratu gabe. Koherentziaz, justiziaz eta lan asko egin ondoren ETBn lortu den akordiorik garrantzitsuen gure ekimena eta lanketaren ondorioa izan zen. Ondoren AENA sententzia erabiliz lortu ziren 27 pertsonen finkotzea, prozesu honen ondorio logikoa izan zen.

Langileen bizi eta lan baldintzak hobetzeko borroka.

Hitzarmenetik kanpo dauden ordutegi ankerrak salatu ditugu, egunero ematen diren hitzarmen urraketei aurre egin diegu; langilearen bizitza eta lana duintasunez uztartzea izan da gure helburua, lau sosen truke ez dute gure bizitza baldintzatu. Gureak izan dira baita eta besteak beste, menpekotasuna duten familikide zaintzengatik enpresak ematen dituen dirulaguntzei bultzada (hitzarmeneko 52. artikulua) eta ordaindugabeko baimenen reformulazioa.

Egonkortze prozesuaren kudeaketa eta barne sustapena.

Prozesua hasi zenean ez zen erraza izan hitzarmenak eskatzen zuen aurreko barne oposaketa deialdia bertan behera uztea. LABek prozesuaren helburua behin-behinekotasuna murriztea zela ulertzen zuen eta barne oposaketa ezabatzea adostu genuen. Era beren finkoen promozio aukera babesteko barne sustapen deialdi ezberdindu bat martxan jartzea lortu dugu. Inoiz ez da holako erabakirik hartu baina egoera ulertuz prozesuak ezberdintzea lortu dugu, kanpo deialdiko plazak aukera berdintasunean lehia daitezen eta era berean gehigarri eran langile finkoek bere promozio eskubidea izan dezaten.

Era berean egonkortze prozesuaren hastapenetan enpresak ezkutuan mantendu nahi zituen plazak ateratzeko lanean izan gara, nahiz eta oraindik plaza kopuru hauek ez dute egiturazko plantilla asetzen. Prozesu honen oinarrien negoziaketan aurretiaz salatu izan ditugun ETBko miseria eta akatsak atera dira eta gure helburua langileen guztien aukera berdintasuna bermatzea izan da, beti ere lege "trakets" hau sortua izan den erizpidea bistatik kendu gabe.

Miramoneko externalizazioen aurka

Betidanik salatu izan dugu, Zuzendaritzak hainbat kategoriaren externalizazioa bultzatu duela. Argi azaldu dugu gure desadostasuna eta gogor borrokatu ere guretzat ezinbestekoak diren hainbat lanpostu berreskuratzeko. Hau horrela izanik, zenbait lanpostu berreskuratzea lortu dugu: errealizazio, errealizazio laguntzaile, grafismo, plato laguntzaile, operadoreak... Hala ere, zenbait kasutan nahikoa ez dela pentsatzen jarraitzen dugu.

Pandemia garaiak.

Ez dugu ahaztu behar gizarteak 2020-2021 artean pandemia bat jasan zuela. Pandemiako lehen momentuetan gure helburua aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak ekiditzea eta era berean langileen osasuna bermatzea izan zen. Erabaki zailak hartu behar izan genituen (hitzarmena bertan behera uztea, ordutegien moldaketa, lan asignazio gabe zeuden langileen soldata bermatzea, ikastaroak, guardiak...). Une latzak izan ziren, baina trebeziak maneiatu eta negoziatu genuen egoera bat izan zen, beste sindikaturen batek beste aldera begiratzen zuen bitartean.

Legebiltzarrean

- ✓ 57 (+27) langile finkotzeko akordio historikoaren bultzatzaile nagusiak
- ✓ 49 langile ez finko 2019tik-2022ra
- ✓ Langilegoaren aintzinasun errealean aitortzak
- ✓ Pandemia garaian soldata eta lanpostuak bermatu genituen.
- ✓ Egonkortze prozesuan plaza guztiak kanpo lehiaketara atera dira eta era berean finkoek barne sustapen prozesu gardenaren izango dute.
- ✓ Mantenimendu, dokumentalista eta plangintza kategorien fusioa, urteko goi mailak 14 pagatan lortzea, artezleen soldata igoera, ITko plusa behin behineko langileen jardunaldietan, menpekotasun laguntzen formulazioa (hitzarmeneko 52. Artikulua) eta beste hainbat...
- ✓ 29 langilek Bilbotik Miramonerako trasladoa lortu dute.